


## Dozena bat zulo beltz txiki, gure galaxiako zulo beltz erraldoiaren inguruan

Esne Bidearen erdian eta Lurretik 25.000 argi-urtera dagoen zulo beltz erraldoiaren inguruan, dozena bat zulo beltz txiki detektatu ditu Columbiako Unibertsitateko (AEB) astronomo-talde batek. Aurkitutako zulo beltz txikiak izar baten eta zulo beltz baten sistema binarioak direla ikusi dute, eta bikote horretan, zulo beltza izarri materia lapurtuz doala uste dute. Ikerketa honek hipotesi zahar bat baieztatu du, hark aurreikusi baitzuen galaxia handietako zulo beltz supermasiboen inguruan milaka zulo beltz txiki elkar bizitzeko aukera.


Zulo beltzek igorritako X izpiak neurtuz jakin dute, Chandra Behatokiak 12 urtez egindako 1,4 milioi behaketa aztertuta. Nano zuriek eta baita galaxiaren erdiguneko gasak eta hautsak berak ere X izpiak igortzen dituztenez, zaila da zulo beltz txiek igorritako X izpiak haietatik bereiztea. Hori da orain arte zulo beltzok gure begietara ezkutuan mantendu izanaren arrazoia. Baina, datu berriak ikusita, gure galaxiaren zulo beltz erraldoiaren inguruan beste 10.000-20.0000 zulo beltz txiki egon daitezkeela iradoki dute ikertzaileek. [Nature aldizkarian](#) argitaratu dute artikulua. ●



ARG.: NASA/CXC/SAO.

## Ozeano Bareko plastikozko uhartera: gero eta handiagoa, gero eta azkarrago

Azken ikerketaren arabera, uste zutena baino are handiagoa da Ozeano Barean, Kalifornia eta Hawaii artean, metatutako plastiko-multzoa edo plastikozko uhartera. Zehazki, 1,6 milioi km<sup>2</sup>-ko azalera du, hau da, Euskal Herria baino 76 aldiz handiagoa da. Gainera, esponentzialki hazten ari dela ohartarazi dute ikertzaileek.



Plastikozko uharteraren mapa, masa-kontzentrazioaren datuekin. ARG.: L. Lebreton *et al./Scientific Reports*.

[Ocean Cleanup Fundazioak](#) zuzendu du ikerketa. Datuak biltzeko, 30 ontzi eta bi hegazkin erabili dituzte. Ontziek 1,2 milioi ligin bildu zituzten, eta hegazkinek 300 km<sup>2</sup> eskaneatu zituzten, irudi multiespektralak eta 3D-koak lortzeko. Datu horiekin, eta eredu bidez, azalera ez ezik, uharterean metatutako plastikoen ezaugarriak, dentsitatea eta beste alderdi batzuk ezagutu dituzte.

[Scientific Reports aldizkarian argitaratu dituzte emaitzak](#). Azaldu dutenez, batzaz beste 10 kg plastiko daude km<sup>2</sup>-ko, eta masaren % 92 plastiko handiek osatzen dute. Emaiza horrek harritu egin ditu ikertzaileak, gehien bat mikroplastikoz osatuta zegoela uste baitzuten. Bestalde, aurreratu dute plastiko handiak biltzeko sistema bat garatzen ari direla eta ikertzen jarraituko dutela. ●